

**II. ATALA****BIZKAIKO LURRALDE HISTORIKOKO TOKI ADMINISTRAZIOA****Abanto-Zierbena Zerbitzuak, S.L.**

Iragarkia, Abanto-Zierbena Zerbitzuak, S.L.ena, kudeatzaile lanpostu bat, administrari lanpostu bat eta toki garapeneko teknikaria betetzeko, behin bakarrik eta merezimendu-lehiaketaren sistemaren bidez deitutako egonkortzeko salbuespenezko hautaketa-prozesurako izangaiak behin-behinean onartu eta baztertu direla eta epaimahaia izendatu dela jakinarazteko dena.

Abanto-Zierbena Zerbitzuak, S.L.ko presidentek

EBAZPEN HAU EMAN DU:

Lehenengoa: Behin bakarrik eta abenduaren 28ko 20/2021 Legean (enplegu publikoan behin-behinekotasuna murrizteko premiazko neurriei buruzkoan) ezarritako lehiaketa-sistemaren bidez deitutako egonkortzeko salbuespenezko hautaketa-prozesuan parte hartzeko eskabideak aurkezteko epea amaituta, Abanto-Zierbena Zerbitzuak, S.L. ko plantillako honako lanpostu hauek langile lan-kontratudun finko gisa kontratatzeko:

- Kudeatzailea (I. eranskina).
- Administraria (II. eranskina).
- Toki Garapeneko teknikaria (III. eranskina).

Aipatutako deialdietarako hautaketa-prozesuetan onartutakoen eta baztertutakoen behin-behineko zerrendak onartzea xedatzen da. Zerrenda horiek ebazpen honen eranskin gisa sartu dira.

Bigarrena: Epaimahaia izendatzea. Deialdi honetako Egonkortze Oinarri Orokorretan ezarritakoaren arabera, hautaketa-prozesua epaitzeko ardura duen epaimahaia honela osatuko da:

- Presidentea:
 - Titularra: Alberto Gabanes Rivero, Ortuellako Udaleko idazkaria.
Ordezkoa: María José Martín Cabello, Abanto Zierbenako Udaleko psikologo-burua.
- Epaimahaikideak:
 - Titularra: Marcos de la Torre del Campo, Abanto Zierbenako Udaleko arkitekto burua.
Ordezkoa: Karlos Belasko Beristain, Bizkaiko Foru Aldundiko Herrilanteko Ukipenen arduraduna.
 - Titularra: Jesús Ignacio Gegundez Azpiaz, Abanto Zierbenako Udaleko Diruzaintza eta Kontabilitateko teknikaria.
Ordezkoa: Teresa Echevarria Santamaria, Bizkaiko Foru Aldundiko gizarte-laguntzailea.
 - Titularra: Inés Franco Esteban, Etxebarriko Udal Berrikuntza Zentroko arduraduna.
Ordezkoa: Carlos Diez López, Abanto Zierbenako Udaleko Obra eta Zerbitzuetako arkitekto teknikoa.
- Idazkaria:
 - Titularra: Garbiñe Estefano Coto, Ortuellako Udaleko administraria.
Ordezkoa, Alex Loustaunau Martínez, EGAZeko kudeatzailea.

Hirugarrena: Aipatutako hautaketa-prozesuan onartutako eta baztertutako pertsonen behin-behineko zerrendak Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratzea erabaki da. Horiek erantsitako zerrendan agertzen dira, eta baztertzeko arrazoiak adierazten dira.



Laugarrena: Interesdunek erreklamazioak aurkeztu ahal izango dituzte behin-behineko zerrenden aurka, edo akatsak edo ez-egiteak zuzendu, 10 egun balioduneko epean, ebazpen hau Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera.

Aukerako berraztertze-errekurtsoa aurkeztu ahal izango da Abanto-Zierbena Zerbitzuak, S.L.ren presidentetzan, hilabeteko (1) epean, Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera, modu presentzialean, Abanto-Zierbena Zerbitzuak, S.L.ren bulegoetan (Bizkaia Plaza, 3, atzealdea).

Adierazitako epean akatsak edo ez-egiteak zuzentzen ez dituzten izangaiak, bidezkoa ez bada edo ez-egitea alegatzen ez badute, behin betiko baztertuko dira hautaketa-prozesu honetatik.

Onartuen zerrendan agertzeak ez du esan nahi izangaiak deialdian parte hartzeko eskatzen diren baldintzak betetzen dituztenik.

Bosgarrena: Onartutako pertsonen behin betiko zerrenda Abanto-Zierbena Zerbitzuak, S.L.ren web orrian argitaratuko da bere garaian.

Abanto-Zierbenan, 2023ko abenduaren 4an. —Presidente, Iñaki Urrutia del Cura



I. ERANSKINA
KUDEATZAILEA

ONARTUEN BEHIN-BEHINEKO ZERRENDA

NAN	Izen-abizenak
72*92***V	Juan Manuel Cobos Guerrero



II. ERANSKINA
ADMINISTRARIA

ONARTUEN BEHIN-BEHINEKO ZERRENDA

NAN	Izen-abizenak
7*****50V	Rafael Martinez del Olmo
201*****G	Goiatz Iturbe Sacristan



III. ERANSKINA
TOKI GARAPENeko TEKNIKARIA
ONARTUEN BEHIN-BEHINEKO ZERRENDA

NAN	Izen-abizenak
4****009J	Raquel Perez Nieva
16****41J	Borja Escalona Ochoa
1****806C	Oihane Bilbao Fernandez